



Ez da nolanahiko mahaia.

Epaimahai feministak jaietan ere bai!

Tolosako jaiak ospatzeko, elkar topatzeko eta komunitate gisa harremanak sendotzeko une garrantzitsuak dira. Baina ospakizun horiek ez dira beti guztientzat berdinak: oraindik ere badaude **botere-harremanak, diskriminazioak eta genero-arrakalak** jai giroan ageri direnak. Eta epaimahaietan ere bai.

Horregatik sortu da gida hau: beste jai eredu bat sustatzeko tresna izateko. Ez baita berdin nork epaitzen duen, nola epaitzen duen, eta zer baloratzen duen. Epaimahaiek eragina dute: baloratzen dute, erabakitzen dute eta ikusgarritasuna izateaz gain ikusgarritasuna ematen diete parte-hartzaileei. Baina, batez ere, jai eredua bera islatzen dute.

Gida hau **Tolosako Udalaren Jai Berdinzaileen Behatokiaren** baitan sortu da. Behatokia udal egitasmo bat da, jaietan berdintasuna eta errespetua sustatzeko sortua. Tresna honen bidez, **epaimahaiak ikuspegi parekide eta feministarekin osatzeko irizpide praktikoak** proposatzen dira: lehiaketa gastronomikoetan, artistikoetan, kiroleetan edo bestelakoetan.

Zergatik gida hau?

- **Epaimahaiak ez dira dekorazio hutsa:** boterea egikaritzen da bertan. Nor dago mahaian eta zer irizpide aplikatzen diren, **festaren norabidea eta mezua baldintzatzen dute.**
- **Ohorea eta ikusgarritasuna jokoan daude:** epaimahaiek sariak emateaz gain, **aitorpen soziala, agerikotasuna eta zilegitasuna** eskaintzen dizkiete parte-hartzaileei. Horregatik, nori ematen zaion protagonismoa eta nola ematen zaion, ez dira kontu hutsalak.
- **Berdintasuna ez da berez gertatzen:** ikasi, landu eta praktikara eramane behar da. **Jaiek ez dute soilik dibertsioa adierazten, balio sozialak ere irakasten dituzte,** eta horretan epaimahaiak funtsezko eragile dira.

Gida hau ez da zurruna. Ez du zertan betebehar itxi bat izan. Gomendio praktikoak eta orientabideak eskaintzen ditu, udal teknikarientzat, jai batzordeentzat eta antolakuntzan dabilen beste eragile batzuentzat, festak guztiontzako izan daitezen laguntzeko.

Epaimahaiak parekide eta feminista izatea ez da beste zerbait, jai eredu inklusiboago baten oinarria da.

Printzipioak

1. Genero parekidetasuna

- Epaimahaian gutxienez %40 **emakume, identitate ez-maskulino edo ez-binarioko pertsonak** egon behar dira.
- Ez da onartuko gizon cis heterosexualek osatutako gehiengo absolutua, ezta lidergo rolen monopolioa ere.

2. Aniztasuna eta ikuspegi intersektionala

- Saiatu epaimahaia osatzen **adin, jatorri, sexu-orientazio, gaitasun eta klase sozial ezberdinetako pertsonak** kontuan hartuta.
- Helburua da herriko aniztasun soziala eta kolektibo ezberdinen parte-hartzea islatzea.

3. Botere oreka eta dinamika zainduak

- Erabakiak **modu kolektiboan eta horizontalean** hartu daitezke, eta eztabaidak giro zaindu eta errespetuzko batean emango dira.
- Parte-hartzea **orekatua eta ez-hierarkikoa** izan dadin, gomendatzen da.

4. Balioekin koherentzia

- Epaimahaikideek **konpromiso etiko bat hartuko dute**: jarrera **sexista, matxista, arrazista, LGTBIfobo edo diskriminatzaileak** ez onartzeko.
- Horretarako, **kode etiko labur bat** ematea proposatzen da (eredu bat sor daiteke).



5. Hizkuntza eta irudi ez-sexistaren eta inklusiboaren erabilera

- Epaimahaiko komunikazioek, ahozkoek zein idatzizkoek, **hizkuntza eta irudi ez-sexista eta inklusiboa erabiliko dute**:
 - Ez da erabiliko hizkera **maskulino generikoan** oinarritutako diskurtsorik, gazteleraren kasuan.
 - Epaimahaiaren aktak, balorazioak, kartelak edo sari-emateak **modu inklusiboan** idatziko dira.
 - Hizkera zaindua erabiliko da, estereotipoak edo umore iraingarria saihestuz.

6. Ikuspegi feministaren presentzia

- Epaimahaian gutxienez **pertsona 1** egon behar da **ikuspegi feministaren inguruko sentsibilizazioa, esperientzia edo prestakuntza** duena.
- Ez da zertan aditua izan behar, baina bai diskriminazio egoerak identifikatzeko eta saihesteko gaitasuna duen norbait.
- Irizpide hau ez da beti aplikatu behar, baloratu ea zure ekintzan balio gehigarria ematen dion edo urrats bat gehiago emateko balio duen.

7. Sailkapenerako irizpide nagusiak mantenduz genero ikuspegia kontuan hartu

- Puntuatzen duten irizpideei buelta bat eman eta betikoaz gain beste balio batzuk atxikitu, hala nola, gastronomian “aurkezpena” edo “originaltasuna” irizpidean, balora daiteke ea platerraren atzean dagoen lankidetzaren ereduak islatzen den.

8. Sariei dagokionez ez da derrigorrezkoa beti sailkapenaren araberrako sariak ematea.

- Gehitu daiteke esate baterako “Berdintasuna eta Elkarlan” saria, genero rolen banaketa orekatua erakusten duen talde bati, edo taldeko —bi kideek lanak nola banatu dituzten baloratuko duena, edo zergatik ez, bikotearen parte hartze maila kontutan hartuko duena, hala nola komunikazioan eta elkar ulertzea kontuan hartuko duena.

Zergatik irizpide hauek?

Jaietako testuinguruan, epaimahaiak askotan komunitatearen aurrean dauden eta ikusgarritasuna duten figurak dira. Horregatik, **epaimahaien osaera eta funtzionamendua arduraz diseinatzea** ezinbestekoa da honako arrazoiengatik:

A. Parekidetasuna ez da automatikoki gertatzen

Gizarteak oraindik genero-arrakala, botere desoreka eta ikusezintasun egoerak sortzen ditu, eta horiek ekitaldietara ere eramaten dira. Genero parekidetasunerako neurriak ez dira "gehigarri politikoak", baizik eta **baldintza justuak** sortzeko oinarritzko tresnak.

B. Aniztasuna ez da soilik estetikoa, funtsezkoa baizik

Adin, jatorri, gaitasun edo klase sozial ezberdinetako pertsonak sartzeak ikuspegi berriak eta balorazio aberatsagoak ekartzen ditu. Talde homogeneoek ez dute gizartearen benetako isla ematen, eta erabaki partzialagoak hartzeko arriskua dute. Aldi berean, adituari buruz dugun **iruditegia aldatzea** ekartzen du.



C. Egitura horizontalak eta zainduak, eraginkortasunetik harago

Eztabaida errespetuzko eta orekatua ez da soilik etikoa, baita praktikoa ere: giro horretan jendeak erosoago parte hartzen du, iritzi gehiago entzuten dira eta **erabakiak aberatsagoak** izaten dira.

D. Hizkuntza eta irudiek boterea dute

Hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabiltzea **ez da formalismo bat**, baizik eta nor dagoen kontuan hartua eta nor ez adierazten duen elementu sinboliko eta praktikoa. Jaietan denok sentitu behar dugu gure tokia dugula.

E. Feminismoa ikuspegi sistemiko bat da, ez soilik emakumeen kontua

Ikuspegi feministak azaleratzen ditu askotan ikusezin geratzen diren zapalkuntzak edo desoreka egiturak. Horregatik, epaimahai batean ikuspegi hori edukitzea ez da "aktibismoa", baizik eta **epaiketa bidezkoago** baterako baldintza bat.

F. Balorazioa balioen isla da

Zer saritzen dugun, zer puntuazio ematen dugun eta zein kriteriorekin, gizartearen balio batzuk berreraikitzen edo indartzen ari gara. Horregatik, puntuazioa emateko irizpideetan **ere genero ikuspegia sartzea** ekintza eraldatzailea da.

Eranskinak

KODE ETIKOA

Ni, behean sinatzen dudan pertsona, honako konpromiso hauek hartzen ditut epaimahaikide modura:

- **Berdintasunez** jokatuko dut, parte-hartzaile guztien aurrean.
- Ez dut onartuko **jarrera sexista, matxista, arrazista, LGTBIfoborik** edo beste edozein **diskriminazio-modu**.
- Errespetuz jardungo dut, bai parte-hartzaileekin, bai beste epaimahaikideekin.
- Gida honetan jasotako **balioekin bat etorriko** den jarrera izango dut uneoro.
- Konpromiso hau sinatuz, Tolosako jaietan epaimahaikideentzako eskatzen diren balioekin eta espirituarekin bat egiten dudala adierazten dut.

Izena eta abizena: _____

Sinadura: _____

